

**ERABAKIA, UPV/EHUKO GERENTEARENA, LANPOSTU BAT EGINKIZUNEN ESLEITZEAN ALDI BATEZ BETETZEKO DEIALDIA IRAGARTZEKO DENA, UNIBERTSITATE HONEN I. TALDEKO LAN-KONTRATUDUN LANGILEEN ARTEAN .**

**L 19**

**Sistemetako teknikaria  
INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN GERENTEORDETZA  
EGITEZKO AURREKARIAK**

UPV/EHuko Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonaleko eranskinean aipatzen den lanpostaren titularra edo betetzen duena gutxienez urte bateko epean kanpoan egongo dela aurreikusita dagoenez, ordezkatu behar da, Gerentziak lanpostu hori zereginak-esleitzean aldi batez beteko dela iragartzen du, hori guztia Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Lan Kontratuko Langileen III Hitzarmenaren 20 artikuluan adierazitakoarekin bat etorritik, eta UPV/EHuko Errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko Erabakiak eman dizkion ahalmenez baliatuz (erabaki hori errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko da, eta 2021eko otsailaren 12ko EHAAn argitaratu zen).

**OINARRIAK**

**Lehena:** Deialdiko lanpostua zereginak esleitzearen bidez hornitzeko prozedura Euskal Herriko Unibertsitateko AZPko lan kontratadunen plangintza batzordearen, 2017ko uztailaren 18ko Akordioan araututakoa izango da; hots, administrazio eta zerbitzuetako pertsonaleko lan kontratadunei eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzen duen Akordioak. Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren 2017ko irailaren 28ko bileran berretutakoa (2018ko maiatzaren 21eko EHA).

Aipatutako Akordioa ikus daiteke Administrazio eta zerbitzuetako langiletako web orrialdean / Barne Deialdiak / Lan Kontratupeko Langileak.

**Bigarrena:** Eskabideak aurkezteko epea deialdia EHuko web orrian argitatatzen den hurrengo egunetik bost egun baliodunetan amaituko da.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14.e) artikuluan adierazitakoaren arabera, eta bat etorritik UPV/EHuko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin (erabaki horrek onartu egiten ditu interesatuak UPV/EHurekiko harreman elektronikoetan identifikatzeko eta sinadura elektronikoa erabiltzeko jarraibideak, bai eta erakunde horretan lanean ari diren pertsonak identifikatu eta sinadura elektronikoa erabiltzekoak ere), eskaera aurkeztu behar da UPV/EHuko erregistro elektronikoaren bitartez: <https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>. Bertan sartuta, "Jasotzailea" atalean "Gerentzia" aukeratu behar da. Horretarako, identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili behar da: Izenperen ziurtagiri digitala, UPV/EHuren txartela (Izenpe), NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).

Era berean, eskaera aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoan eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHuren bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHuren bulegoetan aurkezten diren eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoen sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorritik UPV/EHuko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin. Erabaki horrek onartu egiten ditu gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaitan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHUn; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

**Hirugarrena:** Eranskinean adieraziko diren baldintzak betetzen dituzten lan-kontratadun langileek eskatu ahal izango dute erabaki honen bidez lehiaketara ateratzen den lanpostua aldi batez betetzea.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean lehiatzaileek baldintza eta betebeharrak guztiak beteta izan beharko dituzte.

**Laugarrena:** Balioztatu beharreko merezimenduak Euskal Herriko Unibertsitateko AZPko lan kontratadunen plangintza batzordearen, 2017ko uztailaren 18ko Akordioan araututakoak izango dira, hots, administrazio eta zerbitzuetako pertsonaleko lan kontratadunei eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzen duen Akordioan, bertan ezarritako mugen barruan.

Eskariak aurkezteko epearen amaierako egunean betetzen diren merezimenduak besterik ez dira aintzat hartuko.

**Bosgarrena:** Eskaerarekin batera, izangaiek eskaturiko baldintzak betetzen direla ziurtatzen duten egiaztatze agiriak aurkeztu beharko dituzte, baita lehiatzaileek beste administrazio publikoetan emandako zerbitzuak, Europar Batasuneko hizkuntza ofizialak eta titulu akademikoak egiaztatu behar izango dituzte, 2017ko uztailaren 18ko akordioan 5.4 puntuan esandakoa salbu.

Euskal Herriko Unibertsitateak ofizioski balioetsiko ditu antzinasunari eta Euskal Herriko Unibertsitateko lan eginiko zerbitzuei dagozkion merituenak.



**Seigarrena.-** Deialdi honetan parte hartzen dutenek uko egin diezaiokete deialdian parte hartzeari behin-behineko puntuazioaren aurkako erreklamazioa aurkezteko epea amaitzen den egun arte. Gero, esleipenari uko egiten badiote, AZP lan kontratudunei eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzeari buruzko akordioaren 4.2. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko zaie.

## ERREKURTSOAK

Erabaki honen kontra lan-auzibideko epaitegi eskudunaren aurrean aurkeztu ahal izango du interesdunak demanda. Demanda jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, Erabaki hau argitaratzen den biharamunetik. Hori guztia, 36/2011 Legeak urriaren 10eko Gizarte-arloko jurisdikzioa arautzen duen Legeko 69,2. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

**Sin./Fdo.:** Juan José Unzilla Galán

Eraldaketa Digitalaren eta Komunikazioaren arloko errektoreordea  
Vicerrector de Transformación Digital y Comunicación.

*Gerentzia hutsik geratzeagatik, gobernu-taldearen ordezkapen-araubidearen aldhaketa partzialaren UPV/EHUko errektorearen, 2023ko urtarrilaren 31ko Ebazpenarekin bat etorruta (2023ko otsailaren 8ko EHAA).*

*Por vacancia de la Gerencia conforme a la Resolución de 31 de enero de 2023, de la Rectora de la UPV/EHU, sobre modificación parcial del régimen de suplencias de su equipo de gobierno (BOPV de 8 de febrero de 2023)*

## I. ERANSKINA

### EGINKIZUNEN ESLEIPENA

**Lanpostua:** Sistemetako teknikaria  
**Erref:** L 19  
**Zenbatgarrena:** 1  
**Lanaldia:** Arautua  
**Taldea:** I  
**Kategoria Profesionala:** IKTko goi mailako teknikaria  
**Espezialitatea:** Sistemen Informatika  
**Maila:** 24  
**HE:** 3. Derrigortasun data 1995/01/31  
**Langunea:** INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN GERENTEORDETZA  
**Campus:** BIZKAIA  
**BE:**

#### Lanpostua aldi batez betetzeko baldintzak

Eginkizunak esleitzeko deialdietan parte hartu ahal izango dute honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak:

– UPV/EHUko lan kontratudun langile finkoa izatea eta jarduneko zerbitzuan egotea edo nahitaezko eszedentzian, bere ardurapeko semealabak zaintzeko eszedentzian, edo beste administrazio publiko batean aritzeko eszedentzian egonik edo borondatezko eszedentzia hartuta egonik lanera itzultzea eskatu izana (eszedentzian eman beharreko gutxieneko denbora behin igarota azken kasuan).

– Esleitu nahi diren eginkizunak dituen lanpostuko talde, kategoria eta espezialitate berekoa izatea, lanpostua talde bitara irekita dagoenean izan ezik; kasu horretan bi taldeetako lan kontratudun langileek parte hartu ahal izango dute.

– Esleituko diren eginkizunak dituen lanpostuko talde, kategoria eta espezialitate berean egon izana lan kontratudun langile gisa.

- Beste eginkizunen esleipen bat hartu ez izatea edo uko egin ez izatea 4.2 artikuluan azaltzen den bezala.

- Baldintza espezifikoak betetzen dela egiaztatzea, lanpostuak halakorik edukiko balu.

– 3. hizkuntza eskakizuna gaindituta izatea euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateria mailekin parekatzeko den Dekretuak adierazten duen legez (Azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua) edo, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuesteko den Dekretuan esandakoari jarraituz. (Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua).